

APARKALEKU TXARTELA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

ZIOEN ADIERAZPENA

Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezzen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere.

Ezinduen edo minusbaliatuen integrazio sozialerako, apirilaren 7ko, 13/1982 Legeak bere 60. artikuluan xedatuta dakar, berariaz, Udalek neurri egokiak hartu behar dituztela mugikortasun arazo larriak dituzten pertsona ezinduei dagozkien ibilgailu automobilak aparkalekua eskaintzea errazteko, hori baita tresna egokia talde horren gizarteratze eta lan munduan sartzea aldezteko, mugitzeko arazo larriek eraginda egoteagatik, garraio publikoak erabiltzeko orduan euren burua mugatuta ikusten dutenez erkidegoko espazio eta zerbitzu komuntarako irisbidea errazteko eta horietarako irisbidea egiten dute era autonomoan egiten dutelako, ibilgailu pribatu bidez, helmugara heldutakoan txartelak ahalbideratzen duen aparkaleku abantailen onurak izanik.

Aldi berean, Europako Kontseiluak eta Estatu kideen Gobernuetako Ordezkariek, ezintasunak dituzten pertsonen aukera berdinez tratatzeko, 1996ko abenduaren 20an egin zuten bileran hartu zuten Ebazpenaren arabera, pertsona ezindu edo minusbaliatu orok bere lanbide eta gizarte integrazioa erraztera zuzendutako neurri gehigarri zehatzez gozatu ahal izan behar du.

Ekintza positiboko neurri horien barruan, Euskadiko Irisgarritasuna Sustatzeko, abenduaren 4ko, 20/1997 Legearen bitartez, botere publikoei betebeharra ezarri zaie mugikortasun murriztua duten pertsonen ibilgailuentzako soilik izango diren aparkaleku plazak gordetzeko.

Aurrerako, 1998ko ekainaren 4 egunean, Europar Batasuneko Kontseiluak onartu zuen gomendioa Estatu kideentzako, ezintasunen bat duten pertsonentzako aparkatzeko txartel bateratua ezartzera zuzenduta zegoena, Estatu kideek elkarri aitortutako europar erkidegoko eredu uniforme batetan oinarrituta, txartel horietako jabeak horiekin zerikusia duten aparkatzeko erraztasunak Europa osoan gozatzeko eta delako pertsona erabiltzailea dagoen herrialdean indarrean dauden nazio-arauekin bat.

Euskadiko Autonomia Erkidegoak, aipatu diren aurreikuspen horiek betetzeko eta 5/1996 Legeak esleitutako gizarte zerbitzuen arauen garapen eta planifikazio arloko eskumenen indarrez, ebatzi zuen abenduaren 5eko 256/2000 Dekretua, xede duena "ibilgailua aparkalekuan uzteko ezinduentzako txartela arautu eta Europako Batasuneko estandarri egokitzea", ibilgailua aparkalekuan uzteko txartela emateko eskumena, bere 6. Artikuluarekin bat, interesdunaren bizitokiko udalak eman beharko dio txartela, aipatu den Dekretuan araututako eredia honako prozedurari jarraiki.

Euskadiko Udalek emandako txartel horiek balioa izango dute Euskadiko Autonomia Erkidegoko udalerrri guztietan, Espainiako eta Europar Batasuneko Estatu kideen lurralde osoan, europar erkidegoko udal bakoitzak ibilgailuen ordenazio eta zirkulazio arloan erabakita dituen bere termino eta baldintzekin bat.

Ildo horretan, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Trafikoari, Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatua erreformatzeko abenduaren 19ko 19/2001 Legeko Laugarren Xedapen Gehigarriak ondokoa xedatuta dakar:

"Arau honetako 7. artikulua eta apirilaren 7ko 13/1982 Legeko 60. artikuluan xedatutakoaren indarrez, esleitu egin zaizkien eskumenak egikaritu eta gauzatzeko udalerriek, Lege hau indarrean sartu osteko urte osoan zehar, beharrezko neurriak hartu beharko dituzte mugikortasun arazo larriak dituzten pertsona ezinduentzako aparkaleku txartela emateko eta horren ondoriozko eskubideak benetan egikaritu daitezzen, kontuan izanik Europar Batasuneko Kontseiluaren Gomendia pertsona ezinduentzako aparkaleku txartel bat sortzeri buruz."

Laudioko Herriko Etxea, arazo horrekiko sentiberatuta, orain dela 15 urte baino gehiagotik hona aparkaleku txartelak ematen ari da pertsona ezindu eta mugikortasun murriztua dutenei, erregelamenduz erabakitako ereduarekin bat.

Aldi berean, jakinaren gainean izanik udalerraren termino honetan daukagun aparkatzek, prestatu eta gaitzen ari da gordetako aparkalekuen erreserbak mugikortasun urrituko pertsonen ibilgailuek soilik erabiltzeko xedez, bere gain hartuta ezintasun motaren bat edo beste eta mugikortasun murriztuko egoerak eraginda dagoen hiritarren zati horren bizi-kalitatearen ongizatea ahal denik eta erarik gehienez ipini behar duen legezko arreta jartzea eta bermatzea dagokion betebeharra betez.

Beraz, arestian adierazitako horregatik guztiagatik, Ordenantza honek nahi du lortzen legeek ipinitako betebeharrak betearaztea, aipatu den indarrean dagoen legeriak udal administrazioari esleitzen dizkion eskumenak erabilita, betiere, pertsona ezinduen eta mugikortasun murriztudentzako aparkatzeko txartelak ematea, erabiltzea eta horien funtzionamenduari dagokionez.

Atariko Titulua

I. Kapituluua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Objektua.

Ordenantza honen objektua da arautzea ezintasuna duten pertsonentzako aparkaleku txartela emateko prozedura eta horren erabilera eta funtzionamendu baldintzak.

2. artikulua. Lurralde eremua

Ezintasuna duten pertsonentzako aparkaleku txartela baliozkoa da Euskadiko Autonomia Erkidegoko udalerririk guztietan, Espainiako eta Europar Batasuneko estatu kideetako lurralde guztian eta egiaztatu eta baimena ematen dio txartel horren pertsona titularri, dagoen herrialdean indarrean dauden nazio-arauekin bat, erreserbatutako aparkalekuak erabiltzeko eta ibilgailuen estazionamendu eta aparkamenduei buruzko eskubide berdinez gozatzeko.

II. Kapituluua: Aparkaleku txartel eta erreserba berezi titularrak

3. artikulua. Aparkaleku txartelen titularrak

Ezintasuna duten pertsonentzako aparkaleku txartelen titularrak izan daitezke, Laudio udalerrian bizi den biztanle legez erroldatuta dauden pertsona fisikoak, ezintasun fisiko edo psikiko batek eragindakoak, Arabako Foru Aldundiko Balorazio eta Orientazio Unitatearen aldeko irizpena lortu dutenak, indarrean dagoen legerian ezarritako balorazio-irizpideekin bat.

Lehen Tituluua. Aparkaleku txartela lortu, erabili eta funtzionamendu prozedura

I. Kapituluua: Aparkaleku txartela lortu eta berritzeko prozedura

4. artikulua. Aparkaleku txartela emateko prozedura

1. Espedientea hasiko da interesa duen pertsonaren edo bere legezko ordezkariaren eskaeraz, eta hori izapidetuko da Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Osasun Arloan.
2. Herriko etxeak eskabidearen kopia izapidetuko dio Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko Foru Erakundeari, Balorazio eta Orientazio Unitateak txartela emateko nahitaezko irizpen txosten loteslea eman dezan. Txosten hori espedientean sartuta geratuko da, txertatuta; interesdunaren eskabidea ebatziko da bertan jasota dagoen edukiaren arabera.
3. Irizpena espedientean jasota geratuko da eta Herriko Etxeak ebatziko du eskaerari buruz, aparkaleku txartelaren eskaera aurkeztu zenetik hasita, 3 hileko gehieneko epearen barruan, pertsona interesatuari erabakiaren jakinarazpena emanez.

Kasua bada, epe horren barruan, berariazko erabakirik ez dela hartu, ulertu beharko da eskaera ez dela onartu edo gaitzetsi egin dela, eta hori guztia, herriko etxeak duen berein beregiko eta berariazko ebatzia hartzeko duen obligazioaren kalte barik, betiere eskaeraren objektu dena baiestekoa izan beharko delarik.

Halaber, Eskatzaileak eskubideari uko eginez gero edo eskabidean atzera eginez gero, udalak edo herriko etxeak ebazpena eman beharko du, eta ebazpenean kasuan kasuko inguruabarrak kontuan hartuko ditu, izan diren gertatuak eta egitateak adierazi eta aplikazioko arauak aipatuko ditu.

4. Udalak emango dio Estazionamendu Txartela eman izan zaion titularrari, Europar Batasuneko estatu kideetan txartela erabiltzeko baldintzen laburpenarekin batera. Era berean, emango zaion txartelari txertatu diezazkioke egoki dirizkion dispositiboak, txartelaren originaltasuna bermatzeko eta manipulazio edo ez-legezko kopiak egiaztatzeko.

5. Estazionamendu txartelen erabileraren zaintza eta kontrol lanak Udaltzaingoak egingo ditu.

5. artikulua. Estazionamendu edo aparkaleku txartela berritzeko prozedura

1. Txartela berritu beharko da 5 urtero, bere titularren ezintasunaren balorazioan gerta daitezkeen aldaketek inolako eraginik izan gabe, hau da, bere indarraldia galtzea balekarte, hala nola bost urtekoa baino epe txikiagoarekin txartela berrikusteko muga-eguna erabaki duten balorazio unitateek emandako irizpenen kasuan; kasu horietan aipatu den irizpenean zehaztutako eguna izango da epe-muga.

Berritzeak esan nahi du aurreko txartel zaharraren zenbaki berdina duen berria jaulkiko dela. Ezinbestekoa izango da iraungitako txartela ematea, txartel berria lortu nahi bada.

2. Pertsona interesatuak aurkeztu beharko du estazionamendu txartela berritzeko eskaera, gutxienez ere, txartel hori iraungi baino hiru hilabete lehenago, txartel berria eskura eduki ahal izateko txartel zaharraren indar aldiaren amaiera-epearen egunerako.

3. Lapurretagatik edo galtzeagatik txartela berritzatzeko eskatuko da pertsona titularrak aurkeztea dagokion salaketaren justifikazio-agiria. Hondatzeagatik berritzatze kasuan, hondatutako txartela aurkeztu beharko da, kasu guzti hauetan, Udalak aurreko txartelaren zenbaki ta iraungitze data berdina edukiko duen txartel berria emanik.

4. Arabako Foru Aldundiko eskumena duen Sailak emandako irizpenak behin betiko izaeradun kasuetan, txartela berritzeko administrazio prozedura interesdunaren eskaeraz hasiko da, irizpen berri bat eskatu beharrik gabe, salbu eta Udalak berariaz hala eskatu duen kasuetan.

5. Udaltzaingoaren ikuskapen lanetatik, estazionamendu txartelaren titularraren ezintasun graduaren txartela emateko arrazoia izan denaren arteko bat-etortze fatari buruzko susmo funtsatuak dauzkatenean, irizpen berria eskatuko zaio Arabako Foru Aldundiko eskumena duen Sailari.

II. Kapitulu- Txartelaren ezaugarriak, erabilera baldintza eta funtzionamendua.

6. artikulua. Estazionamendu txartelaren ezaugarriak

Aparkaleku txartel honen ezaugarriak badira ezintasuna duten pertsonentzako aparkaleku txartela arautzen duen eta erkidego eredu uniformera edo ordeztuko duen araudira egokitzen duen abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuko I. Eranskinean definitutakoak.

Aipatu den Dekretuko 5. Artikuluan ebatzitakoarekin bat, ezintasuna duten pertsonentzako aparkaleku txartel-agiriak editatu eta doan banatuko die hala eskatzen dieten udalei Eusko Jaurlaritzako Gizarte-zerbitzuetan eskumena duen sailak.

7. artikulua. Erabilera baldintzak:

1. Txartela pertsonala eta inorengana ezina da. Bere titularra ezintasuna duen pertsona da eta soilik erabili dezake bere titularrak bidaiatzen duenean, bai gidari legez, bai okupatzaile legez, bere jabetzako ibilgailuetan edo beste edozeinetan harik eta bere pertsonaren garraiorako erabilia den artean.

2. Aparkaleku txartela autoaren aurre aldeko haizetakoan ipiniko da, betiere dokumentu originala, halako moduz ezen bere aurre aldea irakurgarria izan dadin ibilgailuko kanpo aldetik eta hala erakutsiko da bere kontrolerako, baldin eta eskumendun agintaritzaren agenteek hala egiteko eskatzen badiote.

Ez dago baimenduta, sekula ere, aparkaleku txartelen kopiak erabiltzea. Kopiek balio ofizialik ez dutenez, ulertuko da kopia horiek dituen ibilgailuak ez daukala halako baimenik eta, beraz, indarrean dagoen legeriarekin bat jardungo da horren aurka.

3. Baliozkoa izango da horretarako seinalizatutako lekuetan aparkatzeko eta, are, aparkatzea debekatutako lekuetan ere, ezinbestekoa den denboraz soilik eta ondoko salbuespen hauekin:

- Oinezkoen zonaldeak, nasak edo espaloiak eta oinezkoen pasabideak.
- Gelditzeko edo geratzeko debekatutako lekuetan.
- Larrialdi irteerak, ibiak edo pasabideak eragozten edo buxatzen dituen lekuetan.
- Zirkulazio erriak murrizten dituen espazioetan.

4. Ordenantza honetan aparkatzeko txartelaren pertsona titularrentzeko espezifikatutako eskubideak, soilik aitortu egingo zaizkie Europar Batasuneko Kontseiluaren Gomendiozko ereduarekin bat datozen txartelak dituztenei.

5. Aparkatzeko txartelaren pertsona titularren obligazioa da mantentzea eta zaintzea garbitasun eta egoera oneko baldintza egokietan, une oro txartelean inskribatutako datu espezifikoaren ikusgarritasuna erraz egiteko eran.

6. Ez dira baliozkoak izango txartel irakurtezinak bere funtsezko daturen batzuetan.

8. artikulua. Funtzionamendua

1. Aparkaleku txartelen pertsona titularrek jakinarazi egin beharko diote udalari, gehienez ere, 15 eguneko epearen barruan, txartela ematearen oinarri izan zen edozein inguruabar aldatu bada, hala nola, kasua bada, txartelaren galera, lapurreta edo hondatzea.

Halaber, jakinarazi beharko da aipatu den epe horren barruan aparkatzeko txartelaren pertsona titularren heriotza.

2. Txartelaren galera, lapurreta edo hondatzea kasuetan, txartel horren titularrari aitortutako eskubideen erabilerarik ezin izango da egin, harik eta txartel berria jaulki arte. Txartel berri baten eskaera, ordenantza honetako 4. artikuluan erabakitakoaren arabera egingo da.

3. Iraungitako txartel oro, baliogabea da ondorio guztietarako.

III. Titulua: Zigorbidezko erregimena

I. Kapitularia: Arau-hauste, isun, zuhurtzia-neurri eta erantzuleak.

12. artikulua. Arau-hausteak.

1. Ordenantza honetan jasotako erabakiak ez betetzea eta bertan ebatzitako debekuak urratzea administrazio arloko arau-haustea da.
2. Sektoreko araudi ezargarri espezifikorik ezean, Ordenantza honetan erabakitakoarekiko arau-hausteak Alkatetza-Lehendakaritzak zehatuko ditu edo ordekotza latzen dion Organoak, Titulu honetan erabakitakoarekin bat, legeriak baimendutako mugen barruan eta, kasuan kasuko, izan litezkeen erantzukizun penalen kalte barik.
3. Ibilgailuen estazionamendu araubideari buruzk arau-hausteak zehatuko dira Trafikoa, Motordun ibilgailuen zirkulazioa eta bide segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartu zuen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuan ebatzitakoaren arabera, Zirkulazioko Araudi Orokorra onartu zuen azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuan ebatzitakoaren arabera, eta zirkulazioko udala ordenantzaren edo ordeztuko lukeen araudiaren arabera.

Arestiko araudian oinarrituta, ezintasuna duten pertsonentzako emandako aparkaleku erreserbetan baimendu gabeko ibilgailuek aparkatzeak erakarriko du dagokion isuna, behar ez den lekuan aparkatzeagatik, hala nola garabiak ibilgailuaren erretiratzea.

Xede horretarako, baimendu gabeko ibilgailutzat hartuko da, hala aparkaleku txartela ez duena, nola aparkaleku txartela eduki bai baina baliozkoa ez dena.

13. artikulua. Arau-hauste motak

1. Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.
2. Arau-hauste arinak dira Ordenantza honetan jasotako arauen aurka gauzatutako, ondorengo idatzi-zatietan larrizat edo oso larrizat, berariaz, sailkatuta ez badaude.
3. Arau-hauste larriak dira Ordenantza honetan tipifikatutako portaerak gauza hauetan:
 - a) Aparkaleku txartela erabiltzea, ibilgailua sartzerakoan edo irtetzerakoan, ibilgailura sartzen ez bada edo bertatik irteten ez bada pertsona titularra.
 - b) Aparkaleku txartel originalaren kopia erabiltzea.
 - c) Udaltzaingoaren agenteei lankidetzarik ez ematea edo baimenik ez ematea aparkaleku txartelen kontrol eta zaintzarako dagozkion egiaztapenak egiteko.
 - d) Iraungitako txartel baten erabilera.
 - e) Arau-hauste arinak gauzatzean berrerortzea.

4. Arau-hauste oso larriak dira jokabide eta portaera hauek:

a) Aparkatzeko txartela lagatzea aparkaleku txartelaren titularra garraiatzen duen ibilgailuarekiko ezberdina den beste pertsona ibilgailu erabiltzaile edo jabeari.

b) Manipulatu, faltsutu, baliogabetu edo hildako pertsona baten txartela erabiltzea.

c) Aparkaleku txartelen eskaeretan datu faltsuak edo nahita erratuen komunikazioa, txartelala emateko datu horiek funtsezkoa idan direnean.

Arau-hauste horrek berarekin batera erakarriko du txartelaren edo erreserbatutako aparkalekua zuhurtzia-neurri legez, etenda uztea, suspentsioa, harik eta txartelaren eskaera prozedura guztia berrikusten den arte.

d) Ordenantza honen arau-hausteengatik etenda edo indarge utzi diren txartelak erabiltzea.

e) Txartelaren etete eta indari barik uzteko zehapen finkora betearazteko, aparkaleku txartela bueltatzeari edo entregatzeari uko egitea.

f) Arau-hauste larriak egiten errepikatzea.

14. artikulua. Zigorrak.

1. Isunak ipintzerakoan gorde behar da derrigorrekoa behar den egokitzapena arau-haustea eratu duen gertaera edo egitateak eta ezarritako isunaren artean; kontuan hartuko da, bereziki, ezarri beharreko isunaren graduazioa, nahita izan den ala ez edo berriro ere errepikatzen den arau-haustea den, sortutako kalteen izaera eta berregintza edo berrekitea, urte baten terminoaren barruan izaera berdineko arau-hauste baten baino gehiagotan, ebazpen irmoz eta finkoz hala aitortua izan denean.

2. Arau-hauste arinak 60 euro arteko isunaz zehatu edo zigortuko dira, larriak 61 eurotik 200 eurora artko isunaz eta oso larriak 201 eurotik 300 euro arteko isunaz zehatuko dira.

3. Arau-hauste larrien kasuan, gainera, ipini ahal izango da aparkaleku txartela etenda edo indar barik uztea gutxienez ere 3 hilabetetik hasi eta gehinenez ere 6 hilabetera arteko epean zehar.

4. Arau-hauste oso larrien kasuan, gainera, ipini ahal izango da aparkaleku txartela etenda edo indar barik uztea gutxienez ere 6 hilabetetik hasi eta gehinenez ere urte batera arteko epean zehar.

5. Arau-hauste oso larrien errepikatze kasuan, ipini ahal izango den zehapena edo zigorra, gainera, aparkaleku txartela etenda edo indar barik uztea gutxienez ere urte bateko epean zehar, txartela berrizatzeko ezintasuna ere erakarri ahal izanik.

6. Ordenantza honen arau-hausteengatik etenda edo indar bari uztearen zehapen edo zigor irmo eta finkoa betearazteko orduan aparkaleku txartela bueltatzeari edo entregatzeari uko egiteak, erakarriko du txartel hori berriztatu ezin izana.

15. artikulua. Zuhurtasunezko neurriak

Trafikoaren zaintzaz arduratutako agintaritzaren agenteek berehala bahi ditzakete beraiek egiaztatzen dituzten aparkaleku txartel faltsutuak, originalen fotokopiak, manipulatuak, anulatuak, indar gabetuak, iraungituak edo hildako titularrenak; horiek hartuko dira kontuan gauzatu eta burututako arau-haustearen proba legez eta tramitatuko edo izapidetuko den administrazio edo auzibide espedientean jasota geratuko dira.

16. artikulua. Erantzuleak

Ordenantza erabakitakoa eta ebatzikoarekiko egindako arau-hausteen erantzukizuna, zuzenean eroriko da arau-hauste hori egin duen egilearengan edo erantzulearengan.

II. Kapituluak: Prozedura

17. artikulua. Zehapen eta Zigor prozedura

Zehapen eta zigorrak ipintzea arlo horretan zehapen ahalmena egikaritzeko ezarritako legezko edo erregelamenduko prozedurari lotuko zaio.

Xedapen Gehigarria

Nazio lurraldean egoiliar legez bizi diren espainiar hiritarrek eta gainerako Europar Batasuneko Estatu kideetakoek, aparkaleku txartel baten titularrak badira, erkidegoko ereduaren arabera, Europar Batasunak Estatu kidee eginiko Gomendioan xedatutakoaren arabera, 1998ko ekainaren 4 eguneko Europar Batasuneko Kontseiluan onartuta, eskumena duten agintariak emandako txartelak izanik, Laudio udalerriaren barrutian edukiko dute mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak aparkatzeko titularrei ordenantza honetan aitortutako eskubideak.

Azken xedapena

Ordenantza hau indarrean sartuko da bere testu osoa ALHAOn argitaratuta azaldu ondorengo 15 baliiodun pasatu ondoren.

Laudio, 2012ko irailaren 6a. Alkateak Jon Iñaki Urkixo Orueta.